



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LAN-POLTSA:

II. TALDEKO GESTIOKO MAILA

ERTAINEN TEKNIKARIA

(KIROLETAKO TEKNIKARIA)

LEHEN ATALA (TEORIKOA)

A EREDUA

2016/10/05



1) Konstituzioaren arabera, baieztapen hauetako zein da ZUZENA?:

- a) Botere publikoak Konstituzioaren mende baino ez daude.
- b) Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende daude.
- c) Herritarrak bakarrik daude Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende.

2) Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen den legearen aurrean berdinak izatearen printzipioaren arabera, baieztapen hauetako zein da ZUZENA?:

- a) Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.
- b) Espainian bizi direnak berdinak dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.
- c) Espainiako bizilagunak berdinak dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.

3) Arau orokor gisa, noiztik dituzte efektuak administrazio-egintzek?

- a) Ematen diren unetik.
- b) Ematen diren egunaren ondoko egunetik.
- c) Dagokien aldizkari ofizialean argitaratzen direnetik.

4) Arau orokor gisa, ez da beharrezkoa zioak adieraztea baldin eta egintza:

- a) Eskubideak edo bidezko interesak mugatzen ez baditu.
- b) Ahalmen diskrezionala baliatuz emandakoa bada.
- c) Administrazio-aurrekari batetik bereizten bada.

5) Gora jotzeko errekurtsio baten ebazpenaren aurka ez dago beste administrazio-errekurtsorik:

- a) Berraztertze errekurtsioa izan ezik, legean ezarritako kasuetan.
- b) Erregutze-errekurtsioa izan ezik, legean ezarritako kasuetan.
- c) Berraztertze errekurtsio berezia izan ezik, legean ezarritako kasuetan.

6) Adieraz ezazu erantzun hauetako zein EZ den ZUZENA:

- a) EHUren Prebentzio Zerbitzua prebentzioaren arloko zeregina betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialez osatua dago, horien



- bidez unibertsitateko kideei babesa emateko segurtasun eta osasunaren arloan. Zeregin horiei jarraituz, aholku eta laguntza emango diete administrazioari, langileei, horien ordezkarietara eta Campusetako eta Campus Arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeei.
- b) UPV/EHUK kanpoko Prebentzio Zerbitzu baten bidez kudeatzen du lan-arriskuen prebentzioa; zerbitzua aldian-aldian kontratatzen da, kontratazio publikoaren arauen arabera, mutualitatearekin batera.
- c) Prebentzio Zerbitzua bi arlotan antolatzen da: Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa. Zerbitzuan, beraz, alor desberdinetakoak arituko dira, baina elkarlanean aritu beharko dute.
- 7) Diru-laguntzen Lege Orokorra xedatzen duenaren arabera (2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legea), diru-laguntzak arautzeko oinarrietan kontrako xedapenik izan ezean, hau izango da egindako gastua:**
- a) Justifikaziorako ezarritako aldia amaitu baino lehen sortutako gastua.
- b) Justifikaziorako ezarritako aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoa.
- c) Aurrekontua itxi baino lehen benetan ordaindutakoa.
- 8) Ondoko faseetako zein dagokio zenbateko jakin nahiz gutxi gorabeherako bateko gastu bat egitea onartzen duen egintzari?**
- a) Gastu-baimena.
- b) Gastu-xedapena.
- c) Obligazioa aitortzea.
- 9) Zeini dagokio Espainiako kirol-federazioen estatutuak eta arautegiak onartzea?**
- a) Espainiako kirol-federazioei berei.
- b) Dagokien nazioarteko kirol-federazioei.
- c) Kirol Kontseilu Nagusiari.
- 10) Adieraz ezazu zer kirol-elkarte mota EZ den ageri 1990eko urriaren 15eko Kirolari buruzko 10/1990 Legean:**
- a) Oinarrizko kirol-klubak.
- b) Kirol-klub amateurak.
- c) Kirol-sozietate anonimoak.
- 11) Kirol Kontseilu Nagusiko Zuzendaritza Batzordearen berariazko eskumena da hau:**
- a) Dagozkion diru-laguntza ekonomikoak eta itzultzeko maileguak ematea, erakundearen aurrekontuetatik ordaintzeko.



- b) Kirolarien ahalmen fisikoa artifizialki handitzea edo lehiaketan emaitzak aldatzea helburu duten substantzia debekatuen eta arauen kontrako metodoen erabileraren prebentzioa, kontrola eta errepresioa sustatzea eta bultzatzea.
- c) Baimena ematea Espainiako kirol-federazioak dagozkien nazioarteko kirol-federazioetan inskribatzeko.

12) Autonomia-erkidegoen eskumenen kalterik gabe, errendimendu handiko kirolaritzat hartuko dira Espainiako kirol-federazioek emandako edo homologatutako lizentzia duten eta baldintza hauetako bat betetzen dutenak:

- a) Espainiako kirol-federazioek nazioarteko lehiaketa ofizialetan, kategoria absolutuan, Espainia ordezkatzeko hautatuak izan direnak, gutxienez azken bi urteetako batean.
- b) Espainiako kirol-federazioek babestutako programetan parte hartzen dutenak Kirol Kontseilu Nagusiak aitortutako errendimendu handiko zentroetan.
- c) Bi erantzunak zuzenak dira.

13) Kirol Kontseilu Nagusiaren barnean, goi-mailako kirolariari laguntzeko zerbitzu bat sortuko da, Ministerio arteko Ordainsarien Batzordeko Batzorde Betearazleak erabakitzen duenaren arabera. Zerbitzua Goi Mailako Lehiaketako Zuzendariorde Nagusiaren mende egongo da, eta zeregin hau izango du:

- a) Nazioarteko lehiaketetan emaitza nabarmenak lortzen dituzten atleten jarraipena egitea.
- b) Espainiako kirol-federazioek goi-mailako kirolariei buruz egiten dituzten proposamenei erantzuna ematea.
- c) Kirol-bekak dituzten kirolariei ordainketak egitea.

14) Indarkeria, Arrazakeria, Xenofobia eta Intolerantziaren aurkako Estatu Batzordeak zeregin hau du, besteak beste:

- a) Dibulgazio eta sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, koordinatzea eta egitea era guztietako indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurka.
- b) Kiroleko Indarkeria, Arrazakeria, Xenofobia eta Intolerantziarik ezaren aurkako Legearen artikulatuak bete ez dituzten pertsonen zerrenda bat egitea.
- c) Zuzenean ezabatzea edozein pertsona bere nazionalitate edo jatorriagatik kirola praktikatzeko diskriminatzen duen arau oro.

15) Aipatzen direnetako zein EZ da Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordearen organoetako bat?

- a) Zuzendaritza-batzordea.
- b) Batzorde iraunkorra.



c) Osoko bilkura.

16) Zer maiztasunekin egiten dira Espainiako Unibertsitate Txapelketak?

- a) Lau urtean behin, joko olinpikoak bezala.
- b) Bi urtean behin.
- c) Urtero.

17) Zein da diziplina-organoa Espainiako unibertsitate-txapelketa batean?

- a) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordearen txapelketarako ordezkaria.
- b) Lehiaketa-batzordea.
- c) Lehiaketa-epaile bakarra.

18) Kirolaren Euskal Kontseiluko kideak honen aginduz izendatzen dira:

- a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua.
- b) Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordea.
- c) Gazteria eta Kiroleko zuzendaria.

19) Pertsona hauetako zein dira Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordeko kide?

- a) Euskal Kirol Federazioen Batasunak izendatutako pertsona bat, Euskal Kirol Federazioen ordezkari.
- b) Soin-Hezkuntzako Irakasleen eta Lizentziatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Elkargo Ofizialak izendatutako pertsona bat.
- c) Biak.

20) Adieraz ezazu erantzun hauetako zein EZ den ZUZENA Unibertsitateen Lege Organikoaren arabera:

- a) Ikasleek eskubidea dute haiengan eragina duten unibertsitateko jardueri buruzko orientazioa eta informazioa jasotzeko.
- b) Ikasleek ez dute eskubiderik aitorpen akademikoa jasotzeko kultura- eta kirol-jardueretan parte hartzeagatik.
- c) Ikasleek eskubidea dute ikasketak eta lan-jarduera uztartzen lagunduko dien arreta jasotzeko.

21) Adieraz ezazu baieztapen hauetako zein den ZUZENA:

- a) Babesletza-kontratu baten bidez, UPV/EHUK, bere kirol-jarduera egiteko diruaren truke, babeslearen publizitatean laguntzeko konpromisoa hartzen du.
- b) UPV/EHUK enpresa-lankidetzako kontratuak baino ezin ditu egin; inoiz ez babesletza-kontraturik.



c) UPV/EHUK ezin du enpresa edo erakunde pribatuen diru-sarrerarik jaso.

22) Adieraz ezazu erantzun hauetako zein den ZUZENA Unibertsitateen Lege Organikoaren arabera:

- a) Unibertsitate publikoek ez dute ahalmenik kultura sortzea eta hedatzea sustatzeko bitartekoak ezartzeko.
- b) Unibertsitateek gizarteari ezagutza transmititzen saiatuko dira zientziaren dibulgazioaren bidez.
- c) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

23) UPV/EHUren Estatutuen arabera, ikasleek honetarako eskubidea dute:

- a) Irakasle eta ikertzaileen ebaluazioan eta administrazioko zerbitzuen ebaluazioan parte hartzeko eta ebaluazio horiei buruzko informazioa jasotzeko, onartutako prozedurei eta indarrean dagoen legeriari jarraituz.
- b) Ikasketen antolaketan parte hartzeko unibertsitateko organoen bitartez eta, halakorik gertatuz gero, ikerketako zereginetan laguntzeko.
- c) Bi atalek jasotzen dituzte ikasleen eskubideak.

24) UPV/EHUren estatutuen arabera, unibertsitateko kideei laguntza emateko zerbitzuak sortu, aldatu edo kentzeko eskumena honi dagokio:

- a) Unibertsitateko Gizarte Kontseiluari, aldez aurretik Gobernu Kontseiluak eskatu behar duela.
- b) Unibertsitateko Klaustroari, aldez aurretik Ikasleen Kontseiluaren eta Gobernu Kontseiluaren onarpena behar dela.
- c) Gobernu Kontseiluari, edo, bestela, Campuseko Batzarrari.

25) UPV/EHUko txapelketetan (Campus Artekoa), zein da berdinketa hausteko lehenengo irizpidea futbol-partida batean:

- a) Luzapena.
- b) Penaltiak.
- c) Garbi jokatzera.

26) 22 taldek parte hartzen duten lehiaketa bat bi fasetan jokatzen da:

1. fasea – Itzuli bakarreko liga, lau multzotan, 5 taldeko bi multzo eta 6 taldeko bi multzo. Multzo bakoitzeko bi talde sailkatzen dira bigarren faserako.

2. fasea – Kanporaketa-sistema, partida bikoitzean, finalean izan ezik.

ZENBAT PARTIDA JOKATUKO DIRA GUZTIRA?

- a) 57
- b) 60



c) 63

27) Adieraz ezazu erantzun hauetako zein EZ den ZUZENA:

- a) Campus Arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea 15 kidez osatuta dago: Administrazioak zazpi izendatzen ditu, OSALANek kide bat izendatzen du, eta erakunde sindikalek zazpi prebentzio-ordezkarik izendatzen dituzte. Sindikatuek izendatutako kideak irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren batzarretan ordezkariak izaten dituzte eta enpresa-batzordeetakoak direnak izango dira.
- b) Campus Arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea eta Campusetako Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeak parte hartzeko kide anitzeko organo paritarioak dira, UPV/EHUko arriskuen prebentzioei buruzko plan, programa eta ebaluazioen inguruan aldiro-aldiro proposamenak eta kontsultak egiteko batetik, eta segurtasun- eta osasun-politika egokia antolatu, zaindu eta hobetzeko bestetik.
- c) Campus Arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeari dagozkion zereginen barnean, hauek daude: campus bati baino gehiagori dagozkion ebaluatze-lanak koordinatzea, campusetako batzordeek prebentzio-jarduerak egitea bultzatzea eta campusetako batzordeek edo Campus Arteko Batzordeak berak proposatutako ekimenen artean lehentasunak ipintzea.

28) 2005eko otsailaren 18ko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera, hauek dira gizonezkoen eta emakumezkoen parekotasunaren arloan euskal botere publikoen jardura gidatu eta orientatu behar duten printzipio orokorrak:

- a) Tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; aniztasuna eta diferentzia errespetatzea eta genero-ikuspegia integratzea.
- b) Ekintza positiboa; sexuaren araberako gizarte-rol eta estereotipoak ezabatzea; ordezkariak orekatu eta koordinazioa eta lankidetzak.
- c) a) eta b) ataletan adierazitako printzipioak 4/2005 Legeak ezarritako printzipio orokorrak dira.

29) Adierazi zer aukera EZ den ZUZENA, 2005eko otsailaren 18ko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera:

- a) UPV/EHUK modu aktiboan hartu behar du kontuan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna lortzeko helburua arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere.
- b) UPV/EHUK hizkera ez-sexista erabili behar du zuzenean ekoizten dituen eragile guztietako dokumentu eta euskarrietan, Unibertsitateak hirugarren pertsona edo erakunde bidez ekoizten dituen dokumentuetan erabiltzen dena kontuan hartu gabe.



- c) UPV/EHUK hizkera ez-sexista erabili behar du zuzenean edo hirugarren pertsona edo erakundeen bidez ekoizten dituen era guztietako dokumentu eta euskarrietan.

30) Adieraz ezazu erantzun hauetako zein EZ den ZUZENA Unibertsitateen Lege Organikoaren arabera:

- a) Kirol-praktika unibertsitateko kide guztien heziketaren parte da.
b) Unibertsitateei dagokie, beren autonomiari jarraituz, kirol-jarduerak eta -lehiaketak ordenatzea eta antolatzea dagokien eremuan.
c) Autonomia-erkidegoen eskumena da, beren lurraldearen eremuan, unibertsitate-kirolaren arloko koordinazioa.

ERRESERBAKO GALDERAK

31) Adieraz ezazu zein den erantzun ZUZENA:

- a) Erakunde publiko baten aurrekontuak dagokion ekitaldian aitortzeko aurreikusten diren obligazioek eta eskubideek osatzen dituzte.
b) Erakunde publiko baten aurrekontuak erakundeak dagokion ekitaldian aitortzeko aurreikusitako obligazioek eta ekitaldian gehienez kita ditzakeen eskubideek osatzen dituzte.
c) Erakunde publiko baten aurrekontuak erakundeak ekitaldian gehienez ere aitortzeko obligazioek eta dagokion ekitaldian kitatzeko aurreikusitako eskubideek osatzen dituzte.

32) Ondorio kaltegarriak dituen egintza irmo baten aurrean, hartzaileak:

- a) Administrazio-errekurtsoa aurkeztu dezake, gora jotzekoa edo berraztertzekoa, dagokionaren arabera.
b) Administrazioari eska diezaioke kaltegarri izenda dezan, Administrazioak aurkara dezan Administrazioarekiko auzien epaitegi eta auzitegietan.
c) Bat ere ez da zuzena.

33) Noiz behartu daiteke herritar bat bere ideologiari buruz deklaratzera?

- a) Inoiz ez.
b) Herritarren segurtasunerako arrisku larrien kasuan, ageri-ageriko delituan.
c) Alarma-, salbuespen- eta setio-egoeraren kasuan.

34) UPV/EHUK Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Lizentziaturan hau gordeko du Euskal Autonomia Erkidego goi-mailako kirolarientzat, betiere gainerako baldintza akademiko orokorrak betetzen badituzte:



- a) Plazen ehuneko hiru gutxienez.
- b) Plazen ehuneko lau gutxienez.
- c) Plazen ehuneko bost gutxienez.

35) Adieraz ezazu zein diren Kirol Kontseilu Nagusiaren zuzendaritza-organoak:

- a) Presidentea eta Batzorde Teknikoa.
- b) Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea.
- c) Presidentea eta Batzorde Iraunkorra.

36) Adieraz ezazu zein erantzun EZ den ZUZENA:

- a) Euskadiko Kirolaren Legearen ondorioetarako, unibertsitate-kiroltzat joko dira unibertsitate-elkarteko kideek, berek bakarrik, unibertsitateen kirol-programen barruan egiten dituzten kirol-jarduera guztiak, aisialdikoak nahiz lehiakoak.
- b) Unibertsitateei dagokie, publikoei zein pribatuei, beren autonomi esparruaren barruan, unibertsitatean kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea egoki deritzen irizpideen eta antolakuntza-egituraren arabera.
- c) Euskadiko Kirolaren Legearen ondorioetarako, unibertsitate-kiroltzat joko dira ikasleek beren unibertsitatearen ordezkari gisa parte hartzen duten kirol-lehiaketak, autonomia-erkidegoaren, estatuaren edo Europaren mailakoak izan.

37) Noren ardura da Europako unibertsitate-txapelketak antolatzea?

- a) FISU
- b) EUSA
- c) IFUSA

38) UPV/EHUK bere kirol-instalazioak kudea ditzake:

- a) UPV/EHUK bere kirol-instalazioak zuzenean bere enplegatu publikoen bidez bakarrik kudea ditzake.
- b) UPV/EHUK, bere kirol-instalazioak kudeatzeko, sektore publikoko kontratuen legeriak eta gainerako ordenamendu juridikoak onartutako kudeaketa moduak erabil ditzake.
- c) Bi aukerak, a) eta b), ez dira zuzenak.